

Kantuketan

Mugi hitzen musikan

Josu Waliño Pizarro
Informatikan lizentziatua


Hurrei zuzendutako CD-ROM berria argitaratu du Elhuyarrek, oraingoan Euskal Kultur Erakundearekin batera. Kantuketan izeneko CD-ROM honetan, hurrek musika izango dute jolasgai, jolasaren bitartez mundu zoragarri hori ezagut dezaten.


EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAK prestatutako Kantuketan erakusketaren parte den CD hau hil honetan bertan izango da salgai. 6-12 urte bitarteko haurrentzat da, eta jolasen bitartez, musikaz gozatu eta musika ikasi ahal izango dute. Euskal musika ezagutzeko eta belarria lantzeko ariketa bereziak aurkituko dituzte bertan.

Bost joko ditu CD-ROM honek, horietako bakoitza munduko kontinente batean kokatuta. Kontinente bakoitzean bertako musikari bat egongo da bertako tresna batekin musika jo eta joko bat proposatuz.

Partiturekin jolastu

Europako biolinistari partiturak erori eta txiki-txiki egin zaizkio. Bi joko daude biolinistari laguntzeko. Lehenengoz, partituraren zati bakoitza dagokion tokian jarri behar da. Horrela, partitura osorik eta behar bezala entzun ahal izango du erabiltzaileak. Bigarren jokoan belarria landu behar da. Partituraren





J.L. BLANCO

Nahaste-mahaia

Hemen haurrek disc-jockey lana egiteko aukera izango dute. Nahaste-mahaia erabiliz, kanta bat hautatu eta nahi bezala entzuteko aukera izango dute, pianoarekin edo ahotsik gabe, edo beste pistaren baten bolumena igo edo jaitsiz.

“6-12 urte
bitarteko
haurrentzat da,
eta jolasen
bitartez, musikaz
gozatu eta musika
ikasi ahal
izango dute”

Zeu bertsolari!

Asian, sitarra jotzeaz gain, bertsotan ere ikasi nahi omen dute, baina hasi orduko oinak ahanzten zaizkie! Bertsoen oinak pergaminoen behealdean daude nahasian. Eraman bakoitza dagokion tokira eta bertso osoa entzungo duzu!

Kantuak sortu


Hau erabiltzailearen sormena lantzeko dagoen txokoa da. Hainbat melodia izango dira aukeran eta, horrela, bat hautatuta melodia horrekin abestuko duen kanta idatzi beharko du pergaminotan. Ondoren, mikrofonoa erabiliz, kanta hori abestu eta grabatu ahal izango du ordenagailuan, baita ondoren musikarekin entzun ere eta disko

Windows eta Linux kutsatzen dituen birusa

Ez omen da oso birus arriskutsua, baina hau da birus batek Windows eta Linux kutsa ditzakeen lehen aldia. W32.Winux izeneko birus honek ez du kalte handirik egiten, baina Windows eta Linux-en dabilzan programa guztiak kutsa omen ditzake. Bi sistema eragileak kutsatzeko gaitasun hori, mihiztaduralengoaian idatzita dagoelako omen da.

Dogcow salbatu!

Mac-eko milaka erabiltzaile elkartu dira Apple-i sistema eragile berrian Dogcow sar dezan exijitzeko. Orain arteko sistema eragile guztietan inprimitzeko garaian agertzen zen txakurtxoak izena ere ba omen zuen: “Clarus the Dogcow”. MacOS X berrian, ordea, ez omen da agertuko eta horregatik sinadura-bilketa egiten ari dira txakur historiko hori sisteman sar dezaten. Sinatu nahi baduzue, hemen helbidea: www.petitiononline.com/sod



DVDen babesa kendu zazpi lerrotan

Bi ikaslek egin dute. Zazpi lerroz osatutako programa simple bat idatzita DVDak babesten dituen kodea gaudituz dute. Zazpi lerroz osatzen den programatxo hori orain arte agertutako sistematik sinpleena da horrelako babes bat gaudituzko, baina bi ikasle horiei arazoak etor diezazkieke Motion Hollywood ingurutik.

gogorrean gorde, nahi bezala aldatu edo beste edozein unetan entzuteko.

Musika ezagutu!

Hemen musika ezagutzen duen ala ez erakusteko aukera ona du haurrak. Hainbat joko daude pantaila honetan, guztiak ere bikote-jokoak: entzuten ari den musika herrialde batekin, sentimendu batekin edo gertakari batekin eta bai abeslariarekin lotzeko jokoak ditu bertan.

Istorioak

Abesti batzuek istorioak osatzen dituzte. Kasu honetan hainbat istorio egongo dira, baina zatituta. Zati bakoitza adierazten duen marrazkiarekin elkartu beharko du haurrak eta ondo egiten duenean, istorio guztia ikusi eta entzuteko aukera izango du. Hau ere musikaz noski! ☑